

# txintxarri



## Lokatza eta lehia

Nazioarteko kros ederra bezain gogorra jokatu dute. Eguraldia gorabehera, lehia polita ikusi ahal izan da lasterketa guztietan / 8-9

## Martxan da kiroldegia

Lasarte-Oriako Udalak prozesua hasi du kiroldegi berria Michelingo gunean eraikitzeko. / 5

Jon Martin Tejeria zerrendaburu gisa aurkeztu du EH Bilduk, maiatzaren 26ko udal-bozetarako / 3

Oria ibaira baimenik gabeko isurketak egin dituztela salatu du Eguzki elkarte ekologistak / 2

Kanpoaldean iluntzen diren lenteak

**% 30**  
deskontuarekin

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazuzure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste gskaintza batzuetan erabili.

R.B.S. 17515 ILL.G.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE-ORIA

**MULTIOPTICAS**  
lehenaz zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



Hipodromoko zubi ondoan dagoen kolektorearen isurketak salatu ditu Eguzki talde ekologistak. EGUZKI

## Ur zikinen ohiko isurtzea salatu du Eguzkik

Uraren Euskal Agentziak zigor espedientea abiarazi du Lasarte-Oriako Udalaren kontra, Ori ibaira "baimenik gabeko isurtzea" egiteagatik. Udal agintariek "bi isurketa" izan direla diote, eta neurriaren aurkako arrazoibidea aurkeztuko dute

### Txintxarri

Ibilgu publikora "baimenik gabeko isurtzea" egiteagatik udalaren kontrako zigor-espedientea abiarazi du Uraren Euskal Agentziak (URA). Hala ezagutarazi du ohar baten bidez Eguzki talde ekologistak. Izan ere, neurriaren berri eman baitio erakundeak Hipodromoko zubi ondoan isurtzen duen kolektoreari buruz galdetuta. Halaber, udalak berretsi egin du hilaren 25ean jaso zuela idazkia, baita haren kontrako arrazoibidea prestatzen ari dela ere.

2016ko martxoan lanean hasi zen Lasarte-Oriako eta Usurbilgo hondakin urak bildu eta itsasora bota aurretik Loiolako araztegi bideratzen dituen Interzeptore edo Hartzaile Nagusia. Bi udalerrietako ur zikin gehienak hara badoaz ere, Eguzkik ohartarazi duenez, hiru urte geroago, oraindik ere badira zenbait hutsune, Hipodromoko kolektorearena, kasu; eta noizbehinkakoak izatetik urrutu,

isuria "etengabea" da. Udalak 2018an gabedia horiek konpontzeko konpromisoa hartu bazuen ere, ez da hala izan; eta egoera salatzeko idazkia aurkeztu zion URA erakundeari.

Erakundeak hilaren 16an emandako erantzunaren arabera, ekologistek aurkeztutako argazkikoak "herri hondakin urak dira, konektatu gabe dagoen Lasarte-Oriako saneamendu zati batetik datozenak"; eta Goiegi erreka estaldurara zuzenean doazenak. Isurketak herriko saneamendu sareko "hutsuneen" ondorio dira eta "Lasarte-Oriako Udalari dagokio saneamendu sare orokorrarekin lotzea". Udalak "ahoz konpromisoa hartu zuten" horiek ezabatzeko, baina

**UR ZIKINEN  
HARTZAILE NAGUSIA  
2016AN ABIAN JARRI  
BAZEN ERE, ORAINDIK  
HUTSUNEAK DITU**

gaur egun arazoak bere horretan jarraitzen duela ikusita, URAK Lasarte-Oriako Udalaren aurkako zigor-espediente baten tramitazioari ekin dio "ibilgu publikora baimenik gabeko isurtzea" egiteagatik.

### Konpontze bidean

Udalak baieztatu egin du URAREN zigor espedientea jaso izana, "bi hondakin isurketaren ondorioz". Bata, aipatutako Goiegikoa da, konpontzen ari direna Sasoetako saneamendu lanen bidez; bestea, berriz, Brunet inguruan izandakoa. Azken hori, udalaren hitzetan, Kantauriko Hidrografia Konfederazioak hondakin urak biltzeko proiektua gaizki gauzatu izanaren ondorio da. Udalak ez du bere eskumenzat, baina, hala ere, erabaki du urritasuna zuzentzeko beharrezko ponpaketa egitea. Neurria onartze bidean dagoen 2019ko aurrekontuan jaso du, "lehenbailehen garbitu eta irtenbidea gehiago ez luzatzeko".

## Udalak saneamendu sarea konpontzeko lanak esleitu ditu

Antxota kaleko, Sasoeta eskolako eta Goiegi erreka Sasoetako igarobideko arazoak konpotzea dute helburu

### Txintxarri

Udalerriko hiru zonaldetan saneamenduko sarea dituen zenbait arazo konpontzeko lanak esleitu ditu Lasarte-Oriako Udalak. Zehazki, Antxota kalean, Sasoeta eskola publikoan eta Goiegi erreka Sasoeta auzoan barrena egiten duen bidean aurrera eramango dituzten zereginak dira adjudikatutakoak.

Gune bakoitzeko lanak enpresa bati egokitu zaizkio. Antxota

kalekoak Excavaciones y Transportes SA enpresak gauzatu ditu, eta horretarako, 19.005 euroko aurrekontua izango du. Sasoeta eskolakoak egiteko, aldiz, Illarreta enpresak 8.263 euro izango ditu. Azkenik, Goiegi erreka Sasoeta auzoan egiten duen bidean saneamendu sarearen egokitzapen lanak, Ubillus Obras y Servicios enpresak egingo ditu 47.388 euroko aurrekontuarekin.



Villa Mirentxuko trinketean egin duten motibo geometrikodun horma irudia. UDALA

## Mural bana egingo dute Oriako frontoian eta Arranbide kalean

J&M Pintoresek margotuko ditu, eta motibo geometrikodunak izango dira, trinketeko bezala

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak bi horma-irudi berri egiteko lanak kontratatu ditu; bata, Oriako frontoian, eta bestea, Arranbide kalean. Gauzatu diren bi margoek motibo geometrikoak izango dituzte, Villa Mirentxuko trinketean azken asteetan burututakoaren moduan. Esleitutako zereginak 6.147 euroko kostua izango dute, eta J&M Pintores enpresa izango da haien arduraduna.

Muralen gauzatzea *Guztion Lasarte-Oria* programaren barruan kokatzen da, helburu duena argazkien edo margoen bidez herriko hormak eta guneak edertzea edo berreskuratzea,

"atseginago edo erakargarriago" bihurtuz. Xede horri jarraituz, horma-irudi berriek txukundu egingo dituzte Oriako kirol eremuko eta pilotalekuko paretak, baita Arranbide kaleko azken tartera ere, non lehenagotik eginak baitzituzten autobus kotxera zaharrei erreferentzia egiten zieten beste margolan batzuk.

Halaber, egitasmo beraren parte da Villa Mirentxuko trinketean margotu berri duten murala. Koloretako laukiz eta laukizuzenez osatua, Piet Mondrian artistaren geometria abstraktuko obren erreferentziak ditu. Hau ere J&M Pintoresek egin du 1.912 eurotan.

# Jon Martin Tejeria da EH Bilduko hautagaia

Michelinen LAB sindikatuko langile batzordeko kide izan da 16 urtez. 2011-2015ko legegintzaldian EH Bilduk egindako lanari jarraipena ematea du helburu Martinek. Alderdiko hautagai bakarra izan denez, automatikoki izendatu dute alkategai

## Txintxarri

EH Bilduk aukeratu du dagoeneko udal hauteskundeetan lehiatuko den hautagaia: Jon Martin Tejeria. Hautagaiak aurkezteko epea amaituta, bakarra izan da Martin, eta, horrenbestez, automatikoki izendatu dute. Harekin batera zerrendan aurkeztuko direnak zeintzuk diren oraindik ez du jakinarazi alderdiak.

Michelingo lantegian egin du lan Martinek azken 22 urtean. Bertan langile mugimenduaren alde egin du lan, LAB sindikatuko enpresa batzordeko kidea izan baita azken hamasei urtean. EH Bilduk hautagaiari buruzko informazioa argitaratu du prentsa ohar batean. Sindikatu horretan ardurak hartutakoa da Martin; esate baterako, hamalau urtez herriko langileei aholkuak eta laguntzak eman dizkie, eta hamaika ekimenetan parte hartu du. Bestalde, hamar urtetik gora eskualdeko idazkaritzako kide izan da.

Aurkezteko arrazoiei buruz hitz egin du hautagaiak: "Esaldi bakar batean laburbildu daitezke: 2011-2015ko legegintzaldian egindako lanarekin jarraitu eta Lasarte-Oria herri bizia izateko bidea bultzatu nahi dugu berriro.



Jon Martin eta Pablo Barrio, 2015 urteko udal hauteskunde kanpainan. TXINTXARRI

Guretzat herri bizia herri kultural eta sozioekonomikoki kohesionatua da".

Alde horretatik, EH Bilduk nabarmendu du Lasarte-Oria "emankorra eta aberatsa" dela, elkarte eta talde ugari antolatzen direlako herritarrak. "Horien guztien lana udaleko lanarekin sinkronizatu nahi dugu, eta elkarlana sustatu". Helburu horiek lortzeko modua ere aipatu du: "Udalaren kudeaketak on, zintzo, garden eta zorrotza izan behar du ezinbestez; erabat funtsezkoa izanik, kudeaketa horretan,

herritarrak ahaldundu eta benetako parte hartze erreala ziurtatuko duen eredu bat".

EH Bilduren arabera, aurreko legegintzaldian frogatu zen hori guztia posible dela. "Bide horretan pauso gehiago ematea eta sakontzea erronka pertsonal eta kolektibo ederra iruditu zait erabakia hartzerakoan. Horregatik, Lasarte-Oria herri bizia egiten frogatutako eskarmentua duen talde sendo baten partaide moduan, alkategai izateko konpromezua hartu dut gogotsu", adierazi du Martinek.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

## Memoria

Onartu behar dut ez naizela oso memoria onekoa. Despistatu samarra naiz, eta *arrainaren memoria* dudala esan izan didate. Eta ez zaie arrazoirik falta. Epe laburreko memoriari dagokionez, argia piztuta uztea, etxera ogirik gabe iristea eta kalera zerbait ahaztuta irtetea klasikoak dira niretzat. Beraz, konfiantza gehiago dut nire epe luzeko memorian.


Esate baterako, gogoan dut nola garai honetan, Santa Ageda bezperarekin, Zubietan ibiltzen ginen ikastolako umeak baserriz baserri koplak kantatzen. Abarken sokak lurrean arrastaka ibiltzen genituen, eta, makilak lurra kolpatzeko ez ezik, kaska-kaska jolasteko ere erabiltzen genituen.

A ze garaiak! Noizbehinka duela 10 urte, 20 edo gehiagoko herria oroitu nahian ibiltzen naiz. Egia esan, pixka bat kostatzen zait imajinatzea EuskoTrenen geltokiaren parean Dorre etxea zegoela, edo BM eta Tximistarreta inguruan hilerria zegoela (sanpedroetan, goitibeherak), edo Andre Joakina Enearen azpian gaztetxea. Gustatuko litzaidake denboran atzera egin eta 80-90eko hamarkadako Lasarte-Oriatik paseotxo bat ematea.

Baina ez da nire kontua bakarrik: badirudi gure epe luzeko oroimena ez dela uste bezain fidela. Neurologian adituen arabera, oroitzapen bat berreskuratzen dugun bakoitzean, berreraiki egiten dugu informazio berria txertatuz. Pentsa, beraz, urteak aurrera doazela, errealitatea noraino desitxuratu daitekeen. Alabaina, ahanturan ez galtzeko memoria entrenatu daitekeela diote. Eskerrak oraindik oroimen ona dutenak badiren, gure zaharrak, adibidez; haiekin freskatu beharko dugu memoria.

## Dantza, hotzari aurre eginez

Euriari eta hotzari aurre eginez, Plaza Dantza taldeko kideek hilabeteroko hitzorduari eutsi zioten igandean. Ateri zegoenean Okendo plazan; euria edo txingorra zegoenean udaletxeko arkupeetan. Umore ona nagusi, ederki mugitu zuten gorputza taldeko kideek muxiko eta dantza ugariaren doinu eta erritmoari jarraiki. Lasarteoriatar bat baino gehiago harrituta haiei begira geratu zen.



TXINTXARRI

# OTEGI

## TOLARE SAGARDOTEGIA

## Larunbatean irekitzen dugu!

(otsailaren 2an)

Egin TXOTX herrian!

Igande gaua eta astelehena itxita

Astean zehar bazkari eta afariak erreserbarekin. Deitu!

ERRESERBAK: 943 36 50 29 / 654 80 61 63 • Solla-Enea Baserria, Zabaleta auzoa 20160 LASARTE-ORIA



Jon Antxordoki eta Boris Nogales EAJko kideak, TSSTko eraikinaren parean. TXINTXARRI

# TSSTko eraikina eraistea geldiarazi nahi du EAJk

Kotxerasko eraikin zaharra erreformatu eta kultur eragileei eskaini nahi die Lasarte-Oriako EAJk. Udalaren moduak kritikatu ditu Jon Antxordoki bozeramaileak, ondare kultural eta historikoa duen eraikin hori "isilpean" eraitsi nahi izateagatik

## Adrian Garcia

Kotxerasko TSSTko eraikina zaharkitua dago, eta aspaldi ez da ezertarako erabiltzen. Haatik, eraikin historikoa da, adituen hainbat txostenek "balio historiko" hori aitortzen baitiote. Horregatik asaldatu da Lasarte-Oriako EAJ udalaren eraikina eraisteko asmoen berri izan duenean. "Eraisteko baimen hori bertan behera uztea eskatzen dugu". Gainera, jarduteko modua kritikatu du. "Gordeka jardun dute, alkatetzak ez du ezer jakinarazi, eta zeharka izan dugu horren berri", adierazi du Jon Antxordoki bozeramaile jeltzaleak.

EAJk azaldu duenez, 1949. urtekoa da eraikina, eta Euskadiko Mugimendu Modernoaren arkitektura ondarearen katalogoan dago. Halaber, Euskadiko Ondare Kulturalaren katalogoan elementu inbentariagarri izaera du.

Inguru horretan etxebizitza auzo oso bat eraikitzea

aurreikusita dago aspaldi, baina proiektua geldirik dago. EAJren proposamena da TSSTko eraikin zaharrari "erabilera kulturala" ematea. "1.000 etxebizitza eraikitzea aurreikusita dago, eta Oria auzoak ere behar ditu bere azpiegitura kulturalak. Herriko kultur eragileek ere lokalak behar dituzte, gauzak gordetzeko edo entseatzeko. Horretarako leku proposa da eraikina".

## Kultur erabilerarako

Izan ere, kanpoko itxurari eutsita, barnealdea birgaitzea da Antxordokiren proposamena. "Lasarte-Oriak duen eraikin zahar bat mantenduko genuke. Orain arte beste eraikin zaharrak

## ERAIKINAREN BALIO HISTORIKO ETA KULTURALARI BURUZKO TXOSTENAK DITU UDALAK

bota egin dituzte. Gutxi geratzen dira herrian".

1.000 etxebizitza horien proiektuan, Kotxerasko eremuan, parke bat aurreikusita dago; eraikina bere horretan mantenduko litzateke. Horregatik, aurreko legegaldian, EH Bilduren alkatetzan, bi arkitekto kontratatu zituzten, txosten bat egiteko. "Idatzi horretan nabarmentzen da eraikinaren berezitasuna, eta ondare kulturalen eta historikoan duen garrantzi handia", azaldu du Boris Nogalesek, EAJko kideak.

Eraikin historikoaren eraistea bertan behera uzteko lanean jarraituko dute jeltzaleak. Oposizioko beste taldeekin harremanetan jarri dira, baita herriko kultur eragileekin ere, inguru hori baliatzeko aukeraz hitz egiteko. "Inauterietako konpartsek ez dute haien karroza non prestatu. Eraikin hori toki aproposa litzateke horretarako".



TXINTXARRI

## Gazteak eta memoria hizpide

Bizikidetzak Lantzen jardunaldien azken saioa egin zuten asteazkenean. Bakegintza alorreko bi aditu ekarri zituzten Mirentxuenera. Batetik, Irene Gantxegi Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Bakegintza teknikari ohia Bestetik, Iker Uson gizarte langilea eta Lasarte-Oriako Bizikidetzako Mahaiko koordinatzailea ohia. Gazteak eta memoria izan zituzten hizpide.

## Ibon Fernandezek aldeko mobilizazioa, larunbatean Donostian

Oier Gomez preso ohiaren heriotza salatzeke eta larri gaixo dauden euskal presoekin etxeratzea aldarrikatzeko mobilizazioak egingo dituzte otsailaren 2an, larunbatean, Sare Herritarrak deituta. Donostian, Alderdi Ederren elkartzeke deia egin dute, eguerdian.

Bada egoera horretan dagoen lasarteoriatarrik: Ibon Fernandez Iradi. Preso dago Lanemmezango espetxean, Frantzia, nahiz eta orain dela zortzi urte esklerosi anikoitza diagnostikatu zioten. Laster epaiketa berri bat izango du, espetxealdiaren etetea aztertzeke. Euskal Herrian egingo diren mobilizazioetan haren etxeratzea ere eskatuko da, nazioarteko tratatuek eta legediak berak dioten moduan.



TXINTXARRI

## Agur 55 urteren ondoren

Azkeneko aldiz itxi ditu ateak aste honetan Echarri argazkilaritza dendak. Erretiroa hartuko dute Juan Estebanek eta Margarikek, eta festa txiki batekin agurtu zituzten bezero eta lagunak. Bizitza osoa dendari eman ostean, eskerrak emateko baliatu zuten azken eguna. Jende ugari bildu zen asteazken iluntzean agurtzeke antolatuta zuten *lunch*-era.

# Kiroldegia diseinatzeko prozesua martxan da

Kiroldegiaren oinarriko proiektua egiteko prozesua abiatu du udalak; otsailaren 23ra arteko epea izango dute horretarako arkitekto etxeek. Bigarren fasean parte hartze prozesua egingo dute. Urte amaierarako aurreikusten du udalak fase hori amaitzea

## Txintxarri

"Historikoa da. Herritar askok eta askok eskatzen zuten". Gorabehera askoren ondoren, Jesus Zaballos alkateak iragarri du udalak martxan jarri duela kiroldegi berriaren proiektua. Michelingo gunean ezarriko dute, egun dauden futbol zelaiaren, frontoiaren, teniseko pistaren eta areto futboleko bestearekin batera. Atletismoko pistak kenduko dituzte, baina Atsopakarren jartzeko proiektua dute, beste futbol zelai batekin batera. Kiroldegia egiteko, herritarrek eta kirol elkarteek pasa den legealdian egin zituzten proposamenak hartuko dituzte kontuan. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dituzte dagoeneko instalakuntza berriak eraikitzeke pleguak, eta martxan da prozesua. Espero da urtea amaitzerako oinarriko proiektua bukatuta egotea.

Kirol instalakuntza berriak eraikitzea beste erremediorik ez du udalak. Egungo kiroldegia 1988. urtekoa da, eta eraikuntzaren fitxa teknikoak ez du baimentzen adabaki gehiago jartzea. "Urte hauetan guztietan beharrendaren arabera joan da kiroldegia moldatzen", azaldu du Zaballosek.

Agustin Valdibia Hirigintza zinegotziak azaldu du dagoeneko



Karlos Altuna Kirol zerbitzueta burua, Jesus Zaballos alkatea eta Agustin Valdivia Hirigintzako zinegotzia, Maialen Chourraut kiroldegian. TXINTXARRI

hasi dela lizitazioaren lehen fasea. Otsailaren 27ra arte arkitekto etxeek proiektuak aurkezteko epea izango dute. Ondoren, horietatik guztietatik bost aukeratu dituzte.

Bigarren fasean parte hartze prozesu bat bultzatuko dute, bost hautagai horien artean aukeratzeko. 104.000 euro (BEZa kanpo) balioko du oinarriko proiektuak. Horrez gainera, beste bost finalistei 3.000 euroko saria emango diete (BEZa kanpo).

Ekainerako emango du epaimahaia ebazpena. Kontratu

gauzatzeko eta egon daitezkeen akatsak zuzentzeko epea kontuan hartuta, abendurako espero du udalak oinarriko proiektua izatea. Exekuzio proiektua lehiaketarik gabe adjudikatu diezaiokete udalak, oinarriko proiektua egin duen enpresari. Edonola ere, lanak 2020. urtea baino lehen ez lirakeke hasiko. Horrez gain, Atsopakarko atletismoko pisten auzia konpondu behar du udalak; Usurbilgo Udalaren zain dago oraindik Zaballos. "Baimena eman behar digute".

## Isla plazako igarobideko estruktura sendotuko du udalak

Biyak Bat elkarteko larrialdietarako irteera egiteko obrak eta kultur etxerako elementuak erosteko kontratua esleitu ditu

## Txintxarri

Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak enpresak Erribera kale eta Isla plaza lotzen dituen pasadizoaren estruktura sendotzeko obrak egingo ditu. Profiler osatutako bilbadura bat eta karbono zuntzeko habetxoak ezarriko dira egitura sendotzeko. 39.126 euroko lana izango da. Errefortzu obrak bukatu ondoren irekiko da berriro pasabidea.

Aspaldi ziren pasabideko egonkortasun arazoak agerian, gangetako forjatuetan hezetasunak eragindako dilatazioak eta sabaiko armaduren korrosioarengatik pitzadurak zeuden. Tartean, ganga batzuen erortzea ere izan zen. Arazo hauek guztiak direla eta, segurtasun neurri gisa, pasadizoa itxi zuen udalak.

Auzotarrek oso erabilia duten pasadizoa konpontzeko hartutako akordioa betetzen du honela udalak.

## Larrialdietako irteera

Bestalde, Jubilatuen Elkarteko larrialdietako irteera egiteko obrak Construcciones Jose Aizpurua Unanue S.L. enpresari adjudikatu dizkio udalak, 47.851 eurotan.

Udalak Biyak Bat erretiratuen elkarteak egindako premiazko eskaera bati erantzun dio. Gaur egun, Jubilatuen Elkarteko sarbide eta larrialdietarako irteerak lehen solairuan daude bakarrik, eta sotoko solairuan larrialdietako irteera bat izateko beharra du elkarteko egoitzak.



Pasabidea itxita. TXINTXARRI

Eskaera hori betetzeko, udalak lokal bat erosi behar izan du atzealdeko etxabeetan. Horren kostua 42.680 eurokoa izan zen. Orain, lokala larrialdietako irteera gisa prestatuko dute.

## Beste inbertsio batzuk

Azkenik, udalak 16.640 euro xedatu ditu Manuel Lekuona kultur etxerako haur-altxagarriak erosi eta areto nagusiko eszenatokiko hainbat elementu berritzeko.

Cinetronica S.L. enpresak Manuel Lekuonako areto nagusiko banbalinoia, errezel amerikarra eta haren erreia berrituko ditu. Lanak 13.010 euroko aurrekontua izango du.

Industrias Korflip enpresak, berriz, 144 haur-altxagarri hornituko ditu. Horiek 3.630 euroko kostua izango dute, eta beharrezkoak dira haur txikien aretoko ikusegia hobetzeko.

# EPA LASARTE HHI

2018-2019 ikasturtea

**MATRIKULA EPEA ZABALIK**  
**Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra**

HELDUEN HEZKUNTZA, OFIZIALA ETA DOAKOA

Tel. 943 36 66 08 / 943 37 64 43 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus

Ordutegia:  
10:00-13:00  
17:00-19:00\*  
(\*ostiral arratsaldea itxita)





Joxe Mari Otegi eta Pili Mercader dira Lasarte-Oriako Otegi sagardotegiko nagusiak. TXINTXARRI

# Alkohol gehiago eta gorrixkagoa

Txotx denboraldia irekita egona arren, larunbatean zabalduko ditu ateak Otegi sagardotegiak. Denboraldiari hasiera emateko azken lanak egiten aritu dira egunotan, eta prest dute guztia 2019. urteari hasiera emateko. Sagardo "gorrixkagoa" egin dute

## Maddi Zaldúa

Sagarra bildu, jo eta upeleratzen aritu dira irailaz geroztik Lasarte-Oriako Otegi sagardotegian. Hilabeteetako isilpeko lana izaten dute sagardo denboraldiek aurretik. Horiek amaituta, 2019ko uzta prest dute, eta larunbatean

zabalduko dituzte upelak sagardo berria dastatzeko. Joxe Mari Otegi eta Pili Mercader sagardotegiko jabeek aurtengo denboraldiko sagardoaren berri eman diote TXINTXARRI-ri.

"Beste urteetan baino kolore gorrixkagoa izango du

aurtengoak". Horixe nabarmendu du Otegi. Otsailetik maiatzaren lehenera bitarte izango da Sollane baserrian sagardoaz gozatzeko aukera. Denboraldia amaituta ixten dituzte ateak, berriz ere datorrena prestatzeko.

Iazkoarekin alderatuta, "alkohol gehiago" ere izango du edariak aurtun. Urteko sagarraren arabera izaten da hori. Sagardo ona egiteko sagarraren kalitatea garrantzitsua da: "Sagarrak osasuntsu behar du egon, frutak jasotzen duen eguzki kopuruak ere eragina du". Horrez gain, garai egokian jasotzea ere ezinbestekoa dela azaldu du Otegi.

Bertako sagarrondoek, ordea, ez dute nahi adina sagardo egiteko ematen. Bi urtez behin izan ohi du uzta oparoa sagarrondoak, eta iaz tokatu zen emari ona. Horri aurre egiteko, kanpotik ekarri behar izaten dute fruta sagardogileek: "Hemengo sagarrondoek fruitu gutxi eman dute aurtun, eta Frantziatik ekarri dugu sagarra".

Gaztain egurrez egindako bederatzi upel ditu Otegi sagardotegiak, eta horietatik bakarria utzi dute hutsik; 40.000 litro ekoitzi dituzte guztira.

## Hilabeteetako lana

Upeletan sartu aurretik lan asko egin behar da, ordea. Iraila edo urria aldera (sagarraren heldutasun mailaren arabera), hasten dira sagarra jasotzen. Lurretik eskuz jasotzen dute fruta, kizkiaren laguntzarekin. Garbitu eta "sagarra jo" edo txikitu egiten dute gero. "Zanpatzea" izaten da ondorengo prozesua; "dolorean sartu eta txikitutako sagarra estutu egiten da, ahalik eta muztio gehien lortzeko". Lortutako muztioa "tiniara" pasako da, eta hortik upeletara. Horko irakinaldiarekin bihurtuko da sagar zukua sagardo.

Denboraldiak irauten duen hiru hilabeteetan gordetzen da sagardo upeletan, baina behin epe hori igarota, botilatara pasatzen dute edaria.

Hor hasten dira zailtasunak, Pili Mercaderren esanetan: "Denboraldian zehar bezero ugari gerturatzen dira gure sagardotegira, baina jendeak ez du denboraldiaz kanpo sagardoa botilatan erosteko ohitura handirik". Urte osoan eskaintzen du Otegi sagardoa erosteko aukera.

Giro onean igaro ohi dute Otegin sagardo denboraldia. Lasarte-Oriako sagardotegi bakarria da, eta urtero izaten dituzte bezero "jatorrak": "Betiko bezeroak etortzen dira gurera, gustura sentitzen gara beraiekin". Jakitun dira Hernani eta Astigarraga aldean sagardo denboraldian gertatzen diren ezbehar eta liskarrez, baina beraiek ez dute horrelakorik bizi: "Sagardotegi asko daude zonalde horretan, jende asko biltzen da asteburu bertan, eta errespetuarekin mugak gaintzen dira askotan".

Etorkezuna ikusten die Otegi sagardotegiei, baina aitortu du beherakada nabari dela: "Garai batean astean zehar ere etortzen zen jendea, orain, berriz, ostiraletik igandera izaten dugu eskaera gehien". Hala ere, nabari du jendeari gustatzen zaiola sagardotegira etorri eta edanaz zein janaz gozatzea; beraz, horrek eutsiko dio etorkizunari.

Prestigioa lortzeko bidean da sagardoa, eta horretarako lanean ari dira sagardoaren inguruko hainbat elkarte eta ekoizle. Horren adibide da edaria kopan zerbitzatzeko azkenaldian egiten ari diren apustua. Sagardotegien eboluzioaren eragina dela uste dute Otegin: "Sorreran gaur egungo basoak baino txikiagoak erabiltzen genituen, batek daki, agian kopan zerbitzatzeko dugu laster".

## Olatz Arrietak zabaldu du 2019ko lehen upela

Urte berriarekin batera iritsi da 26. sagardo denboraldia ere. Urtarrilaren 16an ireki zuten txotx denboraldi berria, Astigarragan. Olatz Arrieta nazioarteko kazetariak ireki du aurtengo lehen upela, Gartziategi sagardotegian.

Prensaurrekoa egin zuten aurretik Astigarragako Sagardoaren Etxean, eta aurtengo uztaren berri eman zuten bertan. Lasto kolorekoa, txinparta bizikoa eta iazkoa baino

alkohol graduazio handiagoko sagardoa ekoitzi dute.

Bi urtetik behin ematen dute sagarrondoek uzta handia, eta aurtengoan kopuru aldetik azkarragoa espero bazen ere, aurreikusitakoa baino sagardo gehiago ekoitzi dute.

2018ko uztarekin 11.800.000 milioi litro sagardo ekoitzi dituzte Euskal Herrian, eta horietatik 1.500.000 litro bertako sagarrarekin.

Pozik agertu da Arrieta jaioterrira. Bruselako egunerokoa utzi, eta bi eguneko oporraldia hartuta etorri da sagardo berriari ongi etorria ematera.

Goizeko prentsaurrekoaren ostean, sagarrondoak landatu du Sagardo Etxearen zelaian, eta Gartziategi sagardotegian elkartu dira gero. Sagar dantzarekin agurtu dute Arrieta, eta denboraldiko lehen upela ireki eta sagardo berria probatuta eman diote hasiera denboraldiari.



Olatz Arrieta, hainbat sagardogilerekin. TXINTXARRI

# Sagarrondotik upelera, lau pauso



## Sagar Biltzea

Sagarrak eskuz biltzen dira Euskal Herrian; lurretik eta kizkiaren laguntzarekin. Iraila bukaera edo urria hasiera aldera egiten da sagar biltzea, frutaren heldutasunaren arabera, eta azaroa erdialdera arte luzatu daiteke. Bi urtez behin ematen du uzta ona sagarrondoak, eta uzta kaxkarragoa den urteetan, Espainiatik, Frantziatik edota Txekiatik ekartzen dute sagarra.




## Sagar jotzea

Garbitu eta bereizitako sagarra matxakan sartu eta bertan sagarra jotzen edo txikitzen da fruta.



## Dolarea

Behin txikituta, dolarrera pasa eta estu-estu zanpatuko da ahalik eta sagar muztio gehien lortzeko. Sagarrak %50 eta %70 arteko errendimendua dauka, hau da, sagar kilo bakoitzeko litro erdi edo 0.7 litro sagardo artean lortuko da.



## Upeleratzea eta irakinaldia

Dolarean lortutako muztioa tinian biltzen da, eta bertatik upeletan sartzen da. Upelak egurrezkoak zein altzairuzkoak izan daitezke, eta bertan muztioaren irakinaldia gertatzen da; azukrea alkohol bihurtzen da lehen irakinaldian. Lehen prozesu hori amaitzear dela, bigarren irakinaldia gertatuko da: azido malikoa, azido laktiko bihurtuko da.

# Lokatza, euria, txingorra, haizea eta atletismoa

Irene Sanchez-Escribanok eta Hassan Channik irabazi dute Nazioarteko Krosaren 64. edizioa. Eguraldi txarra gorabehera, Presa, Gomez Margallo eta Olaso herritarrek maila bikaina erakutsi dute Hipodromoan. LOKEko gaztetxoak ere ederki aritu dira

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Irene Sanchez-Escribanok eta Hassan Chanik inork baino lehenago zeharkatu zuten helmuga goizeko bi lasterketa nagusietan. Bi horiek dira Nazioarteko Krosaren 64. edizioaren irabazle nagusiak, baina ez bakarrik. Eguraldi ezin kaskarragoari aurre egin, zapatilak ongi lotu eta Hipodromoko lokatzean lasterka egitera atera diren kirolari guztiena ere bada garaipena. Giro hotza, euria, txingorra, haizea... Koktel benetan gogaikarria.

Eguraldi txarra gorabehera, seniorretan aritu ziren bi herritarrek maila ederra eman zuten. 40 minutuko denbora egin zuen Jon Presa gazteak. Master kategorian egin zuen korrika Raul Gomez Margallo, eta 4.600 metro hamasei minutu eta 43 segundotan egin zituen.

Emakumeen mailan, Lasarte-Orian bizi den Mari Carmen Olaso hernaniarra Master 50 mailako Euskadiko podiumera igo zen. Olasok bigarren postua eskuratu zuen, 23:06 denbora geroz.

Gaztetxoak aritu ziren goizeko aurreneko lasterketetan. Tartean, LOKE kirol elkarteak atletismo saileko hainbat neska-mutil. Benjaminen lasterketa mistoan ikusi zituzten zaleek kamiseta gorri gehien. Jubeniletan ere izan zuen ordezkariarik Lasarte-Oriak. Aimar Sukunza gazteak bederatzigarren denbora onena egin zuen: 16:45.

Igandeko giroa ez zen onena etxetik irteteko, baina, hala ere, dozenaka zalek jarraitu zituzten probak harmailetatik.

## Erritmoz aldatu arte

Antolatzaileen asmoa garbia zen: atleta espainiar baten garaipena bilatzen zuten emakumezkoen lasterketan. Baita lortu ere, Irene Sanchez-Escribano lasterkari toledarra nagusitu zelako. 3.000 oztopen modalitateko Espainiako txapelduna da, eta igandean erakutsi zuen zergatik. Lehenengo metroetan jarri zen faboritoen multzoaren buruan, eta horrela jarraitu zuen ibilbideko ia bederatzik kilometroak osatu arte.

Hasieran jendetsu samarra zen talde hori soilten joan zen itzuli bakoitzean, hirukote

bihurtzeraino: Sanchez-Escribano, Carla Gallardo palentziarra eta Belen Casetta argentinarra. Helmuga zeharkatzeko itzuli bat falta zela, erritmo aldaketa erabakigarria egin zuen Sanchez-Escribanok, eta bakarrik iritsi zen, 32:07ko denbora eginda.

Gizonezkoen lasterketan hiru atleta nabarmendu ziren hasieratik: Hassan Channi eta Alberto Rop bahreindarrak eta Nassim Hassaous espainiarra. Oso gogorra izan zen hasiera lasterkarientzat: euria txingor bihurtu zen, eta haize ufadak goizeko bortitzenak izan ziren. Trebeak dira oso Rop eta Hassaous, baina ziur aski Channirentzat hobe da Nazioarteko Kroseko distantzia beste bientzat baino, 5.000 eta 10.000 metroetan marka bikainak egin izan dituelako Asian. Igandekoa ere ez zen batere makala izan, kontuan hartuta eguraldia oso txarra izan zela eta ibilbideko zati asko erabat lokaztuta zeudela. 33 minutu eta 35 segundo behar izan zituen bahreindarrak proba osatzeko. Hassaous izan zen bigarren, eta Rop hirugarren.



Emakumezkoen proba hasi eta berehala elkartu ziren faboritoak multzo berean. Sanchez-Escribano



Mari Carmen Olasok (beltzez, 111 dortsala) Euskadiko bigarren postua eskuratu zuen Master 50 mailan. TXINTXARRI

Nazioarteko kroseko emakume eta gizonezkoen podiuma. TXINTXARRI





izan zen azkarrena. TXINTXARRI



Benjamin mailako LOKEko atleta gazteek ilusioz ekin zioten probari. TXINTXARRI



LOKE elkarteko atleta gazteenek primeran pasa zuten igande goizean. TXINTXARRI



Aimar Sukunza bederatzigarren izan zen bere mailan. TXINTXARRI



Jon Presa eta Raul Gomez Margallo lasterketa nagusian izan ziren lehiak. TXINTXARRI



Euri zaparradek erabat lokaztuta utzi zuten ibilbidea. TXINTXARRI

# Igoera fasetik gertu jarraitzen du Ostadarrek

BKL Beasainen aurka 41-48 galdu zuen Ostadar SKT-k asteburuan. Hala ere, senior hirugarren mailako gizonetzko taldea sailkapeneko hirugarrena da, bigarrenarekin berdinduta. Liga amaitzeko lau partida faltan, igoera fasea jokatzeko aukera du

## Txintxarri

Ez zuen asmatu Ostadar SKT taldeak pasa den larunbatean. BKL Beasainen kontra partida gorabeheratsua jokatu zuen Maialen Chourraut kiroldegian, atzetik hasi eta amaituta. Markagailua 41-48 emaitzarekin utzi zuten, eta taldea gizonetako senior hirugarren mailako liga probintzalean sailkapeneko hirugarrena da.

Urdin-beltzek gaizki hasi zuten partida; baina ordulariak aurrera egin ahala, buelta ematea lortu zuten, eta atsedenaldira berdinduta heldu ziren. Bigarren zatian, ordea, zonakako defentsa egin zieten beasaindarrek, eta Ostadarreko jokalariek ez zuten jakin erasotzeko modua topatzen. Lehiakideak aldentzen joan ziren, baina amaieran zazpi puntugatik besterik ez zuten irabazi.

Ander Otaegi jokalaria lasartearrari entrenatzaile lana ere egitea egokitu zitzaion oraingoan: "Ez nuen asmatu,



Urdin-beltzak ez ziren gai izan BKL Beasain gaintzeko. TXINTXARRI

galdu egin baikenuen". BKL sailkapenean atzetik bada ere, haien kontra jokatutako denboraldiko bi partidetan galdu egin dute. Horren gakoia, taldearen ezaugarrietan egon daitekeela uste du: "Ekipo

gazteagoa da, gurea baino handiagoa eta fisikoki indartsuagoa". Izan ere, Ostadar 20 eta 41 urteko hamalau lagunek osatutako talde anitza baita. Batzuk urtetan saskibaloian ibili dira, eta beste batzuk, aldiz,

taldea sortzearekin batera hasi ziren kirol horretan.

## Igoera edo Kopa

Edonola, lau partida faltan, igoera lehiatzeko aukera dute oraindik. Sailkapeneko lehena den Getariko Keta Babyauto Sharks-ek ia ziurtatua du bi tokietako bat, orain arteko partidetan inor ez baita haiei irabazteko gai izan. Bigarren postuan, aldiz, une honetan, Larramendi ikastola eta Ostadar SKT berdinduta daude, donostiarrek saskiratze alde hobea badute ere.

2014-2015 denboraldian lehiatzen hasi zirenetik, denboraldi guztietan egon dira igoera fasetik gertu, nahiz eta azkenean maila aldaketa ez lortu. Aurretik dituzten partidek erabakiko dute sailkatu edo Kopara doazen. Batera ala bestera, taldekideak konforme egongo direla uste du Otaegik. "Badakigu ez garela igoko. Igotzen bagara ondo, eta bestela, ere. Gure helburua ez da talde lehiakorra sortzea liga jokatzeko. Argi dago galtzeak haserretzen gaituela, baina zaletasuna da. Entrenatu eta kirola egin".

Asteburuan, C. D. Internacional izango dute aurrez aurre. Denboraldi honetan jokatu zuten azkenekoan aise irabazi zieten donostiarrei. Larunbat arratsaldean Intxaurrendoko Mons kiroldegian garaipena errepikatzea espero dute Ostadarreko kideek.



Judith Navarro jokalaria. M. UGIDOS

## Navarro, Espainiako txapelketan

Judith Navarro saskibaloia jokalaria Euskadiko selekzioarekin parte hartu du Huelvan jokatutako aurtengo Espainiako txapelketan. Navarro hasierako bostekoan izan da Euskadik jokatutako bost partidetan; hiru garaipen eta bi porrot lortu dituzte. Txapelkun izan den Andaluziari gailendu, eta dominen lehiatik gertu egon badira ere, mantentzeko jokatu behar izan zuten Madrilan kontra; 48-41 irabazi zuten.

## ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

**Real Sociedad SAD - Ostadar SKT**  
Igandea. 11:00. Zubieta, Donostian.

#### ERREGIONALEN GORENGOA

**Ostadar SKT - Hernani CD**  
Larunbata. 17:15. Michelin Kirol gunean.

#### ERREGIONALEN 1. MAILA

**Axular KKE - Ostadar SKT**  
Igandea. 19:30. Puio, Donostian.

#### JUBENILEN OHOREZKO MAILA

**Urola KE - Ostadar SKT**  
Larunbata. 12:30. Argixao, Zumarragan.

#### JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA

**Ostadar SKT - Orioko FT**  
Larunbata. 15:30. Michelin Kirol gunean.

#### KADETEEN OHOREZKO MAILA

**Ostadar SKT - Hernani CD**  
Larunbata. 13:30. Michelin Kirol gunean.

#### KADETEEN 1. MAILA, KOPA

**Idiazabal KE A - Ostadar SKT B**  
Larunbata. 18:00. Arizkorreta, Idiazabalen.  
**Ostadar SKT A - Lazkao KE**  
Larunbata. 12:00. Michelin Kirol gunean.

#### INFANTIL OHOREZKO TXAPELDUNEN FASEA

**Ostadar SKT - Arrasate CD**  
Igandea. 11:15. Michelin Kirol gunean.

#### INFANTIL TXIKIAK, SAILKATZE FASEA

**Ostadar SKT - Billabona KE**  
Larunbata. 10:30. Michelin Kirol gunean.

#### INFANTILEN 1. MAILA

**Antigua Luberi KE - Ostadar SKT A**  
Igandea. 09:00. Berio, Donostian.

**Danena KE - Texas Lasartearra CF**  
Larunbata. 09:15. Elbarrena, Zizurkilen.

**Ostadar SKT B - Euskalduna SD**  
Igandea. 09:45. Michelin Kirol gunean.

#### ARETO-FUTBOLA

##### HERRIKO TXAPELKETA

**Avenida Taberna - Izengabe**  
Larunbata. 09:15. Michelin kirolgunean.

**Asador Irigoien - Bar Buenetxea**  
Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.

**Academia London - Insausti taberna**  
Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.

**Trumoi Taberna - Patricio Cocktail Bar**  
Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.

#### 3. NAZIONALA

**Antiguoko KE - Aurrera de Vitoria CD**  
Larunbata. 16:15. Pio Baroja kir., Donostian.

#### GIPUZKOAKO SENIORRA

**Teep Samaniego Orixe - Aldaz Klinika**  
Ostirala. 22:00. Uzturpe pil., Tolosan.

#### GIPUZKOAKO II. MAILA

**ISU Leihoak - Gorka Margoak Makax**  
Ostirala. 20:50. M. Chourraut kiroldegian.

#### GIPUZKOAKO JUBENILAK

**Goierri - Bar Lasarte**  
Larunbata. 10:45. Aldiri kir., Urretxun.

#### GIPUZKOAKO KADETEAK

**Balerdi Harategia - Mondrate CD**  
Larunbata. 11:20. M. Chourraut kiroldegian.

#### SASKIBALOA

##### SENIOR EMAKUMEZKOAK

**Ostadar SKT - Cafes Aitona Askatuak A**  
Larunbata. 18:00. M. Chourraut kiroldegian.

##### SENIOR HIRUGARREN MAILA

**Internacional - Ostadar SKT**  
Larunbata. 18:00. Mons kir., Donostian.

#### JUNIOR ERRENDIMENDUA

**Ostadar SKT A - Inar Optika ISB**  
Larunbata. 16:00. M. Chourraut kiroldegian.

#### KADETE ERRENDIMENDUA

**Goierri Oxykor - Ostadar SKT A**  
Igandea. 12:15. Aldiri kir., Urretxun.

#### KADETE PARTE HARTZEA

**Internacional - Ostadar SKT B**  
Larunbata. 11:45. Mons kir., Donostian.

#### PILOTA

**PROMOZIOKO TXAPELKETA, FINAL AURDENAK**

**Elordi eta O. Etxebarria - Arteaga II eta Urretabizkaia II**  
Ostirala. 22:00. Urduliz, Bizkaian.

#### IGERIKETA

##### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

**Buruntzaldea IKT-ko infantil mailako igerilariak Gipuzkoako Neguko Txapelketa lehiatuko dute.**  
Larunbata eta igandea. Agorrosi, Bergaran.

##### GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TX.

**Buruntzaldea IKT-ko alebin mailako igerilariak Gipuzkoako Eskolarteko XXXIV. Txapelketan izango dira.**  
Larunbata eta igandea. Agorrosi, Bergaran.

#### LASTERKETA

##### DONOSTIAKO 3M

**Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik Donostiako 3 Mendiak lasterketan parte hartuko dute.**  
Igandea. 09:15. Kontxako hondartza, Donostian.

#### NEGU TRAIL LASTERKETA

**Hainbat herritarrek Negu Trail lasterketan lehiatuko dute.**  
Igandea. 10:30. Berastegin.

#### ON BOSKO KROSA

**Lasarte-Oriako korrikalariek On Bosko krosoan izango dira lasterka.**  
Igandea. 11:00. Urnietan.

#### XII AUDIO HERRI KROSA

**Herritar batzuk Audioko herri krosoan parte hartuko dute.**  
Igandea. 11:00. Audio, Araban.

#### ERRUGBIA

##### OHOREZKO B MAILA

**Campus Unibersitario Ourense - Babyauto Zarautz RT**  
Igandea. 12:00. Ourense.

##### 18 URTE AZPIKOA

**Gaztedi RT - Babyauto Zarautz Beltzak**  
Larunbata. 11:45. Lakua, Gasteizen.

##### 16 URTE AZPIKOA

**Gaztedi RT - Babyauto Zarautz Beltzak**  
Larunbata. 10:30. Lakua, Gasteizen.

#### BOLA-JOKO

**BIKOTEKAKO TXAPELKETA Ostadar SKTko kideek bigarren sailkapen saioa jokatuko dute.**  
Igandea. Egun osoa. Aitzan.



Michelingo bolatokira gerturatutako hainbat zale, jaurtiketa bat adi begiraten. TXINTXARRI

# Urnieta eta Zerain, txapelkun Michelinen

Bola txapelketako final handia jokatu dute Michelingo bolatokian. Gizonezko eta emakumezkoen launa talde aritu dira, nor baino nor gehiago. Emaizak baino gehiago, giro ederra izan da azpimarratzekoa: aspaldian ez da horrenbeste zale ikusi kantxan

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Larunbata. Eguerdiko hamabiak pasatxo. Michelin, kirolez lepo. Tenisa, areto futbola, futbola eta bola-jokoa batera ordu horretan. Goiztiarrenak, hala ere, bola jokalaria izan ziren. 08:30ean egin zituzten zozketak, erabakitzeak nor hasiko zen birlak astintzen. Giro ederra zegoen bolatokian, aspaldian ez bezala; jendez lepo. Hitzordu oso garrantzitsua izan zen pasa den asteburuko: Bola Txapelketako finalerdiak eta finalak.

Gizonezko taldeak hasi ziren. Ategorrieta, Segura, Urnieta eta Legazpia, nor baino nor gehiago. Seina aldiz jaurti zuen bola jokalaria bakoitzak. Pistaren beste aldean zeuden bederatzir birlak iritsi aurretik, erdi-erdian zegoen beste birlatxo bat saihestu behar zuten jaurtiketa balekoa izateko.

Goiza pasa ahala berotu zituzten eskumuturrak taldeek, eta jaurtiketa ikusgarriak egin zituzten. Kazetaria bertan egon bitartean inork ez zituen birla

guztiak bota, baina baten batek bakar bat utzi zuen tente. Txalofesta bolatokian, eta giro ederra. Txantxetan aritu ziren taldeak, kiroltasunez. Kazetariekin ere bai: "Argazkiak ateratzera etorri zarete, eta huts egiten hasi dira jokalaria. Marka da gero!".

## Urnieta eta Zerain txapelkun

Larunbatean Michelinen elkartu ziren jokalariek makina bat urte daramatzate jokatzeko. Gizonak beterranoagoak dira, eskarmentu gehiago dute, baina emakumeak ere oso trebeak dira, txapelketan argi asko erakutsi zuten. Azken urteetan gero eta talde gehiago sortzen ari dira.

Urnieta eta Legazpia sailkatu ziren final handira gizonezkoen

**EMOZIOA, AMAIERARA ARTE: BOST ETA SEI BIRLAKO ALDEAK BESTERIK EZ BI FINALETAN**

kategorian. Emozioa ez zen azken jaurtiketara arte bukatu: urnietarrak nagusitu ziren azkenean, 170 birlarekin. 164 bota zituzten legazpiarrek. Emakumezkoen finala ere oso borrokaturia izan zen. Zerainek irabazi zuen, 46 birla botata. Billabonak 41 etzan zituen.

Ostadar ez zen aritu larunbatean, baina bai igandean, binakako txapelketan, Aian.



Jokalaria bat, bola jaurtitzen. TXINTXARRI

## Garoa tabernaren garaipena etxean, Idiazabalen aurka

Borrokaturako garaipena eskuratu dute areto futboleko Garoa tabernako seniorrek Maialen Chourraut kiroldegian. 1-0 nagusitu dira Reformas Idiazabalen aurka; defentsa lanean ongi aritu dira bi taldeak; azkenean, Ane Izagirrenen gol bakarri esker lortu dituzte hiru puntuak.

Clinica Aldaz eta Isu Leihoak taldeek ez dute horrenbesteko eraginkortasunik erakutsi. Lehenak Oiarzunen aurka galdu du (1-6). Bigarrenak polemikaz zipriztindutako partidaren galdu dira. Izan ere, Antiguokoren aurka 3-3 zihozenean epaileak ez du ontzat hartu gol bat, ateko sarea hautsita zegoelako. Hurrengo



Irudian, Trintxerperen aurka. TXINTXARRI

jokaldian sartu dute 4-3koa antiguotarrek. Lasarte-Oriako jokalaria bat kanporatu dute ondoren, eta etxeokoei partida erabakita utzi dute 5-3koarekin. Bestalde, jubenilek eta kadeteek haien partidak irabazi zituzte, Luberrin eta Eskoriatzaren aurka.

## Bi gutxiago izan arren, amaieraraino borrokatu dute

Berriro ere desabaintailan. Babayauto Zarautz lehen taldearen bajak direla eta, Ohorezko B Mailan, Beltzaken senior taldeak jokalaria utzi behar izaten ditu. Joan den asteburuan ere, Michelinen, hamahiru jokalarirekin atera ziren, ohikoak baino bi gutxiagorekin. Halere, Iruñeako La Unica taldeari gogor eutsi

zieten, eta duintasunez lehiatu zuten lasarteoriarrek. Hala, Michelingo zelaira hurbildutako ikusleak hunkitu zituzten, azken mintutueta, presio nekazaren ondorioz, hirugarren entsegua lortu zutenean. Azkenean, 21-43 amaitu zen partida. Julen Cubreiro, Ander Rekondo, Xabi Prieto, Julen Aristorena, Beñat Arroyo, Andoni Amonarriz eta David Vega izan ziren norgehiagokan. Lehen taldeak 17na berdindu zuen Vigoko Unibertsitatearen aurka.



OSTADAR IPAR MARTXA

## Ipar Martxa Hendaian

Ostadar Ipar Martxako kideek Hendaia irteera egin zuten pasa den larunbatean. Eguraldi txarrak atzera botata edo, lasartear gutxi animatu zen txangora, baina Irungo eta Donostiako lagun batzuk batu zitzaizkien. Hilabete honetan bi saio egingo dituzte, 17an, Aspanogiren aldeko martxan parte hartuko dute; eta 23an, Ametzagaina parkera joango dira.

## Asier Pozo lasarteoriatarra, Gipuzkoako pistako txapelduna

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako Beñat Carbayeda eta Haimar Etxeberria bigarren eta hirugarren izan dira

### Txintxarri

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako junior eta kadeteek Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten. Asier Pozok junior mailako garaikurra eskuratu zuen; kadete mailan, berriz, Beñat Carbayeda

bigarren izan zen, eta Haimar Etxeberria hirugarren.

Asier Pozoren lehen urtea da junior mailan. Aurten juniorrek 23 urtez azpikoekin lehiatu dute. "Lasterketak gogorrak eta bizkorrak izan dira junior

mailako txirrindularientzat", azaldu du Buruntzazpiko entrenatzaile Eugenio Pozok.

Gipuzkoako Txapelketan lau probatan parte hartu behar izan dute gazteek: *scratch*, *tempo*, kanporaketa eta puntuaketa. Lauen puntuak batuta erabaki da sailkapena.

Asteburu honetan, Beñat Carbayeda eta Asier Pozo Gipuzkoako selekzioarekin Bordelen izango dira lehian, Frantzia. Bikotekako *Madison* proban parte hartuko dute.



Pozo, Carbayeda eta Etxeberria Gipuzkoako txapelketako garaikurrekin. E. POZO

## Asteburu bikaina Almi Campos eta Eneko Eizagirre judokentzat

Gipuzkoako txapeldun izendatu ostean, Salamancako Espainiako kopan brontzezko dominak eskuratu dituzte

### Txintxarri

Almi Campos eta Eneko Eizagirre judoek ez zuten atsedenik izan lehengo asteburuan. Larunbatean Gipuzkoako junior mailako txapelketa jokatu zuten Hondarribian; igandean, berriz, Salamancan lehiatu zuten Espainiako kopako proba.

Gipuzkoako txapelketan, biek urrezko domina eskuratu zuten. Eizagirrek erraz irabazi zituen bere mailako hiru borrokak.

Espainiako kopako proban, berriz, zailago izan zuten LOKEko ordezkariak. Camposek maila handiko judoken aurka egin zuten, eta hirugarren postuan amaitu zuten. Eizagirrek min hartu ostean, brontzezko domina eskuratu zuten.

Bestalde, LOKEko infantil mailako gaztetxoek Gipuzkoako txapelketarako lehen sailkapen saioa izan zuten Hondarribian.



Bi judokak urrezko dominekin. G. ARISTEGI

Julen Ugartek eta Unai Guisadok bigarren postua lortu zuten, eta Iñigo Dafontek bosgarrena. Lehen biek txapelketako finalerako txartela lortu dute. LOKEko entrenatzaile Gorka Aristegi pozik agertu da judoka guztiek egindako lanarekin. "Kontuan izan behar da Almi kadetea dela, eta infantilek lehen urtea zutela".

## Kirol jarduera puntualen laguntzak bost elkarteentzat

Kirol jarduera puntualentzako 2018ko diru-laguntzak ebatzi ditu udalak. Lasarte-Oriako 5 elkartek 10.126 euro jasoko dituzte guztira.

Jarduerak honakoak dira: Ostadar SKTk antolatutako XXIII Lasarte-Oria Bai! Kross Herrikoia, Saskibaloiko VI. 3x3 Txapelketa, Saskibaloiko Selekzioen Topaketa eta Bolo eta toka I. Joxe Zapirain

Omenaldia; Texas Lasartearra sustatutako 2017 urteko San Silvestre lasterketa; Eguzki Areto Futbola taldeak prestatzen duen III. Gabonetako Areto Futbola txapelketa; Buruntzaldea IKTren XIX. Lasarte-Oria Igeriketa Saria eta Masterrak Itsasora Kanpusa, eta azkenik, Sasoeta Sasoiarekin antolatutako III. Jose Martija Txapelketa.

Honez gain, Ostadar SKTk Jon Tecedor bekako 1.800 euro jasoko ditu. Beka hau kirol minoritarioak sustatzera zuzenduta dago.

**m**  
Mondragon  
Unibertsitatea



Gure ikasleen ahotan

## "Basque Culinary Centerren eginez ikasten dugu"

Ane Galardi Fernandez de Agirre Lasarte-Oriakoa da eta Basque Culinary Center-Mondragon Unibertsitateko Gastronomia Zientzien Fakultateko Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak graduko 2. maila ari da egiten.



**Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?**

21 urteko lasarteoriatarra naiz, Batxilergora arte bertan ikasi dut. Ondoren, lauhileko bat egon nintzen Bilbon Medikuntza ikasten.

Atletismoa egin izan dut txikitatik, eta lagun eta familiarrekin sukaldaritzaren gustatzen zait.

**Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Bi urte apur bat aldrebesak igaro eta gero, ikasten ari nintzena utzi eta benetan zer nahi nuen planteatu nuenean, Mondragon Unibertsitateak eskaintzen duen Gastronomia graduan sartzea erabaki nuen.

Azken batean, nire zaletasuna den sukaldaritza eta gastronomia arloa orokorki hartzen duen gradu bakarra delako.

**Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Orain arteko esperientzia oso aberasgarria izan da. Lehen esan bezala, gastronomia mundua oso era zabalean hartzen du: sukaldaritzatik enpresa munduraino, diseinu eta zientzia arloetatik pasata. Gainera, taldean lan egiten irakasten digute, dinamika onak erakutsiz, proiektuak burutuz, eta abar.

**Nola definituko zenuke jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Basque Culinary Centerren eginez ikasten dugu. Hau da, ikaskuntza guztiak praktikaren bitartez barneratzea da helburua. Honek asko laguntzen du esperientzia eskuratzen.

Konpetentzien bidez ebaluatzen gaituzte; hau da, ikasgaiak soilik ebaluatu beharrean, orokorki gastronomia munduko profesional on batek izan beharko litzukeen alderdi guztiak hartzen dituzte kontuan.

**Unibertsitatekeren zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?**

Teoria eta praktikaren arteko uztarketa gustatzen zait, 10 eguneko errotazioak izaten ditugu teoriatik praktikara, horrek dinamika handia ematen dio graduari. Praktikan aritzeak segurtasuna ematen digu ikasleonek ikasurte bukaerako praktikaldietara begira, irakasleekin ere gertutasun handiago bat eskaintzen duela uste dut. Tailerren kasuan benetako jatetxe baten lana ikusi ahal izaten dugu: aurreelaborazioa, zerbitzua, protokoloa, sukaldaritza, etab. Jatetxe bat nola eraman behar den ikusi eta ikasten dugu, are gehiago, guk geuk daramagu Basque Culinary Centerreko jatetxeetako bat. Era berean, kontuan izan behar da unibertsitatea nahiko gaztea dela eta irakaskuntza metodologia berriak positiboak izan daitezkeen arren, etengabeko aldaketan daudela, oinarriak oraindik ere mugimenduan daudelako, finkatzeke.

## ZORION AGURRAK



**Mike**  
Zorionak txapeldun. Ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



**Maider eta Mateo**  
Maider txapelduna, oso ondo pasa zure 9 urtebetetzean. Muxu handi bat zure familiaren partetik. Mateo txapeldun, disfrutatuz zure 9 urtebetetzean, besarkada handi bat zure familiaren partetik.




**Unax**  
Zorionak eta muxu haundi bat gure txikiari famili guztiaren partetik. Bi urte hauetan bezelaxe jarraitu guri poza eta alkatasuna ematen.



**Paula**  
Zorionak printzesa!!! 11 muxu handi-handi familia guztiaren partetik. Askok maite zaitugu!!!



**Jon**  
Zorionak txapeldun!!! 8 urte bete dituzu eta. Muxu haundi bat irai, ama eta aitaren partez. Ondo pasa!!!



**Oier**  
Zorionak maitia!! Super ondo pasa zure egunean!! Bederatzi muxu erraldoi familiaren partetik.

## JAIOTAKOAK

**Magali Apeztegia Azpiazu.** Urtarrilaren 28an.  
**Hodei Gonzalez Montero.** Urtarrilaren 25an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 1 ORUE  
Larunbata, 2 ACHA-ORBEA  
Igandea, 3 ACHA-ORBEA  
Astelehena, 4 DE MIGUEL  
Asteartea, 5 LASA  
Asteazkena, 6 GIL  
Osteguna, 7 URBISTONDO

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.** Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## HILDAKOAK

**Nekane Larzabal Oronoz.** Urtarrilaren 31an.  
**Antonio Labaka Iburguren.** Urtarrilaren 27an.  
**Maria Pilar Querejeta Arruti.** Urtarrilaren 26an.

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 607 625 233

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

### ADLOPren primarioak

Ahal Du Lasarte-Oria Pudek otsailaren 2a larunbatean, maiatzeko udal hauteskundeetako zerrenda eta hautagaia erabakitzeke primarioak egongo ditu. Bozketa Manuel Lekuona kultur etxeko hirugarren solairuan egingo da, 10:00etatik 13:00etara. Alderdiko kideek parte hartu ahal dute, betiere, alderdian 10 egun baino gehiago badaramatzate.

### Kiroldegiko bulegoa itxita astelehenean

Geldialdi tekniko dela eta, otsailak 4 astelehena, kiroldegiko bulegoa itxita egongo da.

### EHko Mus txapelketako kanporaketa

XI. Mus txapelketako Lasarte-Oriako kanporaketa otsailaren 1ean jokatu da, Xirimiri elkartearen, 22:00etatik aurrera. Izen ematea egunean bertan egingo da eta bikote bakoitzak 20 euro ordainduko ditu. Bikote sailkatuak otsailaren 23an lehiatu du Gipuzkoako finala.

Euskal Herriko txapelketako finala Lizarran izango da martxoaren 16an. Txapeldunak, besteak beste, 3.000 euroko saria eta Karibera lau laguntza bidaia eskuratuko ditu. Lehiaketan Euskal Herriko mus federazioak txapelketarako zehazki ezarritako arauak jarraituko dira.

### Haurrei lehen sorospenak egiteko ikastaroa

Gurutze Gorriak umetxo eta haurrei oinarritzko lehen sorospenak egiteko ikastaroa antolatu du otsailaren 2 eta 3an. Saioak 9:00etatik 14:00etara izango dira Lasarte-Oriako Gurutze Gorriko ikasgelan. Prezioa 45 eurokoa da eta plazak mugatuak dira. Izena emateko edo ikastaroari buruz informazio gehiago jasotzeko bidali mezua [lasarte@cruzroja.es](mailto:lasarte@cruzroja.es) helbidera edo deitu 607 573 335 telefono zenbakira.


### Meka Lekuren 25. urteurrena

Aurten, 2019an, Meka Leku akademiak 25 urte betetzen ditu ateak lehen aldiz zabaldu zituenetik. Ospatzeko, hainbat ekitaldiren artean, *Memoria* liburu bat sortu nahi du, Meka Lekuko ikasle ohien esperientziak, bitxikeriak edo pasadizoak biltzen dituena. Horretarako, honako posta elektronikoa ireki du: [nimekalekun@gmail.com](mailto:nimekalekun@gmail.com).

Anima zaituzte, eta kontatu nahi duzuna; zure oroitzapenak, bitxikeriaren bat... ahaztu ez duzun zerbait, ikasitakoa.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


### Ostirala, 01




### Larunbata, 02




### Igandea, 03




### Astelehena, 04



### Asteartea, 05



### Asteazkena, 06



## SUDOKUA

	2					9	4
	3		9	4	7	8	
4		9		2		1	3
5			3	6	2	4	
	9	6		1	4		3
	4	3				6	1
3			2	8	6		4
9	8	4				3	2
	6		4		3		8

**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### ERRENTAN EMAN

Pisua alokatzen da Zabaleta auzoan. Bi logela, komuna egongela eta sukaldaria. Mikelengatik galdetu. Telefonoa: 603 643 734.

### LANA

#### ESKARIA

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko baita garbiketa lanak egiteko ere. Orduka edo interna. 677 76 86 82.

Pertsona arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 671 79 54 84.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Telefonoa: 663 488 438.

Interna gisa lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 687 355 095.

### SALEROSKETA

#### EROSKETA

Ondo dagoen josteko makina erosiko nuke, lan txikiak egiteko. 687 355 095

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Elizagire, Inigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

#### Publizitatea

Irati Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

#### Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

#### Legu Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGUISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 1

**LASARTE-ORIA Mus txapelketa**  
XI. Mus txapelketako Lasarte-Oriako kanporaketa jokatu da. Izen ematea egunean bertan egingo da. Xirimiri elkarte, 22:00etatik aurrera.

**USURBIL Hitzaldia**  
*Meirasko 19ak* hitzaldia eskainiko da Tadamun elkargune internazionalistak antolatuta. Potxoenea, 18:00etan.

**DONOSTIA Hitzaldia**  
Amaia Arranz arkeologik *Lehen ogiak*. Zerealen domestikazioaren jatorriak ikertzen hitzaldia eskainiko du. XVII Arkeologia jardunaldietako saioa. San Telmo museoa, 19:00etan.

**ANDOAIN Antzerkia**  
Tartean Teatroak *Ghero: azken euskalduna* antzerkia eskainiko du. Sarrera, 12 euro. Bastero kulturunea, 21:30ean.

## LARUNBATA 2

**LASARTE-ORIA Kaldereroak**  
Hungariako Kaldereroek Sasoeta auzoa bisitatuko dute. Jaizkibel Plaza, 18:00etatik aurrera.

**USURBIL Prozesu parte hartzailea**  
Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioaren egitasmoa definitzeko prozesu parte hartzailean biztanleak eta sarrera baldintzak zehaztuko dira. Potxoenea, 10:30etik 12:30era.

**USURBIL KalexarRock Jontxurekin**  
KalexarRock Jontxurekin jaialdia antolatu du Kalezarko Jai batzordeak: 12:30ean, Inazio Perurena harrijasotzailea eta aizkolaria. 14:00etan, bertso-bazkaria, Saizar sagardotegian. Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi eta Eli Pagola. Sarrerak, Bordaxo eta Aitzaga tabernetan. 19:00etan, Kontzertuak. Haraneko aparkalekua, 12:30etik aurrera.

**HERNANI Antzerkia**  
*Screen Man* haurrentzako antzerkia eskainiko du Valentziako L'home Dibuxa taldeak. Sarrera, 3 euro. Biteri kultur etxea, 11:00etan eta 12:15ean.



**LASARTE-ORIA Santa Ageda bezperako eskea** Lasarte-Oriako hainbat taldek Santa Ageda bezperako koplak eskainiko dituzte, herriko kaleak eta inguruko baserriak haien kantuekin pozteko. Eguraldia lagun badute, Landaberri ikastetxeko txikiak eta LH6ko gaztetxoak ere erdiguneko kaleetan barrena ibiliko dira, goizean eta arratsaldean. Lasarte-Oria, astelehena, egun osoa

**AGINAGA Bertso-afaria**  
Bertsoak eta jai giroa nagusi izango dira Aginagan: 20:00etan, Trikipoteoa, Arrate taberna. 21:00etan, bertso-afaria, Atarialde elkartean. Bertsolariak: Andoni Egaña, Markel Eizagirre eta Sebastian Lizaso. Sarrerak, 30 euro. Aginagako Arrate tabernan salgai. Sarrera kopuru 90 lagunentzat mugatua. Ondoren, Ostolaza eta Lutxurdioren erromeria. Aginagan, 20:00etatik aurrera.

**DONOSTIA Kaldereroak**  
Hungariako Kaldereroek Donostiako auzoak haien kantuekin alaituko dituzte. Donostia, arratsalde eta gaua.

## IGANDEA 3

**ANDOAIN Dantza**  
*V. Neguko Markel Figueroa* jaialdia eskainiko da. Bastero kulturunea, 12:00etan.

**DONOSTIA Inude eta Artzaiak**  
Kresala Elkarteko Inude eta Artzainen konpartsa Donostiako Parte Zaharreko kaleetan zehar aterako da. Parte Zaharra, 12:00etan.

**DONOSTIA Bertso Derbia**  
Bertso Derbiaren XIII. edizioa egingo

da. Bertsolariak: Andoni Egaña, Oihana Iguaran eta Amets Arzallus/ Onintza Enbeita, Sustrai Colina eta Xabi Paya. Gonbidapenak Donostia Kulturaren leihatiletan (Victoria Eugenia Antzokia eta Antzoki Zaharra) eta Realaren dendetan eskuratu daitezke. Antzoki Zaharra, 18:00etan.

## ASTELEHENA 4

**LASARTE-ORIA Santa Eskea**  
Santa Ageda bezpera egunean hainbat taldek oles egingo dute: 10:00etan, Landaberri Garaikoetxeako HH eta LHko gaztetxoak aterako dira bi taldeetan banatuta. Arratsaldean, Landaberri LH6ko gaztetxoak, Landaberri Garaikoetxeatik aterata. 18:00etan: Erketz EDT, Oriamendi plazako lokala. Zabaleta auzoko lagunak, Antonio Blas plaza. Xumela eta Earra! bertso eskolako, Artizar taberna. Lasarte-Oria, egun osoan zehar.

## ASTEARTEA 5

**USURBIL Hitzaldia**  
Jubilatuena Astearren baitan, Matiako Nerea Galdonak hitzaldia eskainiko du. Artzabal, 16:00etan.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Asterix: Edabe magikoaren sekretua**  
Igandea: 17:00. Sobre ruedas Igandea: 19:30.

### ANDOAIN

#### BASTERO

**Pioey: bakarrik hegan inoiz ez**  
Larunbata: 17:00. Igandea: 17:00. **Gente que viene y bah**  
Larunbata: 19:30. Astelehena: 22:00.

### USURBIL

#### SUTEKI

**Balerina**  
Igandea: 17:00.

#### URBIL

**Bajo el mismo techo**  
Ostirala: 15:55, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

Larunbata: 15:55, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55. Igandea: 15:55, 18:10, 20:25, 22:40.

#### Green Book

Ostirala: 16:00, 19:35, 22:15, 23:50. Larunbata: 16:00, 19:35, 22:15, 23:50. Igandea: 16:00, 19:45, 22:30.

#### Creed II: La leyenda de Rocky

Ostirala: 16:30, 19:15, 22:00, 00:45. Larunbata: 16:30, 19:15, 22:00, 00:45. Igandea: 16:30, 19:15, 22:00.

#### Familia al instante

Ostirala: 16:30, 19:00, 21:45. Larunbata: 16:30, 19:00, 21:45, 00:20. Igandea: 16:30, 19:00, 21:45.

### Glass (Cristal)

Ostirala: 19:20, 22:00, 00:50. Larunbata: 19:20, 22:00, 00:50. Igandea: 19:20, 22:00.

#### La favorita

Ostirala: 18:40, 21:15, 00:20. Larunbata: 18:40, 21:15, 00:20. Igandea: 19:00, 21:45.

#### Aquaman

Ostirala: 16:00, 21:30. Larunbata: 16:00, 21:30. Igandea: 16:00, 22:00.

#### Astérix: El secreto de la poción mágica

Ostirala: 16:00, 17:45 (eusk.). Larunbata: 16:00, 17:45 (eusk.). Igandea: 16:00, 17:45 (eusk.).

#### Bohemian Rhapsody

Ostirala: 17:00,

22:15, 00:10. Larunbata: 20:45, 23:35. Igandea: 20:20.

#### Ralph Rompe Internet

Ostirala: 18:55. Larunbata: 18:55. Igandea: 18:55.

#### Dragon Ball Super: Broly

Ostirala: 20:00. Larunbata: 16:00, 18:15.

#### Dragon Ball Z: Jainkoen bataila

Igandea: 16:00.

#### El regreso de Mary Poppins

Ostirala: 16:35. Larunbata: 16:35. Igandea: 16:35.

#### Gente que viene y bah

Ostirala: 00:50. Igandea: 22:55.

#### El vicio del poder

Ostirala: 00:40. Larunbata: 00:40.



## LABURPENA

**Asterix: Edabe magikoaren sekretua**  
**Zuzendariak:** Alexandre Astier, Louis Clichy. **Gidoilaria:** Alexandre Astier. **Komikia:** René Goscinny, Albert Uderzo. **Herr.:** Frantzia (2018). **Musika:** Philippe Rombi. **ekoizleak:** M6 Films / M6 Studio / M6 Films / Les Editions Albert René / Mikros Image / Canal+ / OCS / W9 / Région Ile-de-France / Centre National de la Cinématographie. **Iraupena:** 86 minutu.

## Milaka abentura, ordekoaren bila

*Asterix: edabe magikoaren sekretua* filmaren oinarria René Goscinny eta Albert Uderzoren komikietan dago. Pixarren film arrakastatsuenetako batzuetan (*Wall E*, *Up*, edo *Ratatouille*) lan egindako Luis Clichy zinemagileak zuzendu du, Alexandre Astierekin batera. 2014an, *Asterix: Jainkoen Egoitza* filman egin zuten lehenik lan elkarrekin.

Edabe magikoa prestatzeko zuhaitz batetik bestera mihura bila ari dela, Panoramax druida lurrera erori da. Orkatila bat bihurritu du, baina zer gertatuko litzateke ezbeharrak okerrago

izan balitz? Nork prestatuko luke neurrigabeko indarra ematen duen edabe magikoa? Erretiroa hartu beharko lukeela eta ordeko bat behar duela pentsarazten dio.

Asterixek eta Obelixek lagunduta, Galia osoan zehar bidaiatuko du gutxieneko baldintzak betetzen dituen druida gazte baten bila. Misterioa babestu ahal izateko beharrezko talentua eta zintotasuna duen norbait behar dute, bere herrixkaren etorkizuna jokoan baita.

Erromatarrek herrixka mendeatzeko aukera ikusten dute. Lortuko ote dute?

# DBHko IKASLEEN ONARPENA | 2019-2020

Epea: Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

[www.oriarte.eus](http://www.oriarte.eus)

## ORIANTE BHI

Institutu bat, bi eraikin

### 1. eta 2. DBH

#### Landaberri eraikina

Pintore kalea, 2  
20160 LASARTE-ORIA  
Tel.: 943372890

[info@oriarte.eus](mailto:info@oriarte.eus)

#### IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera  
08:30etatik 12:30etara  
Astelehena, asteartea eta ostegunean arratsaldez  
14:30etatik 16:00etara

### 3. eta 4. DBH

#### Larrekoetxe eraikina

Buenos Aires aldapa, 1  
20160 LASARTE-ORIA  
Tel.: 943372852 | 943372277

[info@oriarte.eus](mailto:info@oriarte.eus)

#### IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera  
09:00etatik 13:30etara  
Astelehenetik ostegunera arratsaldez  
14:30etatik 16:30etara

- 12-18 urte bitarteko hezkuntza-eskaintza D ereduan.
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen.
- Aniztasunaren trataera: Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Programa (HBSP), Pedagogo Terapeutak (PT), Aniztasun Curricularreko taldeak (AC), Bidelaguna (eskolaz kanpoko laguntza), laguntzako irakasleak, Hizkuntza Indartzeko Proiektuko Irakaslea (HIPI) eta Orientatzaileak.
- Teknologia berrien erabilera. Baliabide digitalak eta ikasgela guztietan sareko konexioa.
- Atzerriko bigarren hizkuntza aukeran.
- Jangela zerbitzua.

